

**UDALEKO GARABI ZERBITZUAK PARTIKULARREI LAGUNTZA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA**

**12. araua**

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluko III. Kapituluako 2. Ataleko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Prezio publikoak ibilgailuak eraman edo tokiz mugitzeko Udalak kontratatutako garabi-zerbitzua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu beharko dituzte.

Sortzapena

3. artikulua.- Prezio publikoa ordaindu beharra zerbitzua ematen hasten den une berean sortzen da.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

4. artikulua.- Zerbitzua Herritarren Segurtasuneko Alorraren bulegoetan aurkeztutako eskabidearen bitartez eskatu beharko da, eta zerbitzua emanen da baldin eta une horretan emateko aukerarik bada.

5. artikulua.- Prezio publikoa Herritarren Segurtasuneko Alorreko bulegoetan jarritako eskudirutako kutxan ordainduko da, Eranskineko tarifak aplikatuta eginen den likidazioari jarraikiz likidazio hori ordaintzeko unean bertan jakinaraziko delarik.

Tarifak

6. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak Arau honen Eranskinean daude jasota, eta barne hartuko dute, behar izanez gero, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuota.

**TARIFA-ERANSKINA**

- Garabi bakoitzeko, ordu edo zatiki bakoitzeko	61,30 euro
---	------------